

JOAN MARI IRIGOIEN

«Ez dizkiot jainkoari adarrak jarri, baina gustatzen zait adarra jotzea»

Altza, 1948. Hogeita lau urtez idazle profesional moduan aritu zen, Elkar argitaletxearen bitartez. Ordea, 2013ko urrian, osasun arazoak zirela eta, erretiroa hartu zuen.

Joan Mari Irigoienek esklerosia pairatzen du eta jarduna gutxitu behar izan du. Hala ere, idazten jarraitzen du. *Bi urtetako kronika fakultatiboa* liburua horren froga.

| MIKEL ASURMENDI |

Zer da *Bi urtetako kronika fakultatiboa* liburua, zure idazle ibilbide oparoa kontuan hartuta?


Liburu berezia da, bizi izandako oinaze bizi baten marka darama. Bestetik, nire libururik laburrena da, baina baita urrutien iristen dena ere, beharbada, halakoa izan baitzen gaitz hark ireki zidan zauria, neure izatearen hondorik gabeko amildegi beltzik beltzetan zehar eramán ninduená.

Liburuaren azala, ohi bezala, Imanol anaiak egin dizu. Ba ote duzu horri buruz zer esanik?

Bai, azal bikaina egin dit anaiak. Baina gauzak zer diren... Anaiaren estudiotik pasatzen naiz noizbehinka, haren obra ezagutzen dut trazoz trazo eta marraz marra. Esan behar baitut ni, liburu bat bukatutzat jotzen dudán bakoitzean, harengana joaten naizela, ea azala egiteko zerbait bururatzen zaion. Hala, egun batean joan nintzaion; azaldu nion liburu berriaren gai nagusia depresioa zela, adierazi nion, halaber, koadro ezin ilunago bat nahi nuela, baita argiaren taupada xume bat ere, esperantza gisa. Eta berak, hitzetik hortzera: “Horretarako ez ote da egokiena, nik estudioan dudán koadroa, gauak hartutako hiria gai nagusi duena?”. Berehala ulertu nion. Nik ere ongitxo ezagutzen bainuen anaiaren koadro eder hura; koadroak bazuen gainera, edo badu argi mehe bat, dorreen ilunetik ateratzen dena eta espazioa labana batek bezala ebakitzen duena, bidean aurrera egiteko, giza itzal bat besarkatzen duen arte. Hantxe genuen, beraz, irtenbidea, eta halaxe erantzun nion anaiari: “Bai horixe! Hire koadro hori egoki izan daiteke”.

Ataka latza ezagutu duzu.

Depresioak itxuragabe gutxitzen zaitu, psikokoki batez ere. Entzuna nuen gaitzaren berri



ARGAZKI PRESS / JUAN KARLOS RUIZ

“Maite nauen jendea pozik egongo da, beraiek atera binaute putzu beltzetik, azken batean, beren egiteak eta ez-egiteak bitarteko”.

“Ahots bat eman nahi izan diet gaixotasunak jotako guztiei”

Harrapatu aurretik ere nik bane-kien, maila batean, depresioaren berri –perretxikoak bezala zabaldu da gaixotasun hori munduan zehar, egia esan–, eta nola bai bainekien, halaber, gizartean bazegoela depresioarekiko halako arduragabekeria eta halako banalizazio bat, bestela ere biziro gorrotatzen nuena, erori nintzenez ahots bat eman nahi izan nien gaixotasunak jotako guztiei... horretarako gai nintzela ikusi nuenean, hori bai, gaitzak larriki jota zaudenean ez baitago beste aukerarik min eta oinaze psikikoak oro pairatzea baino. Gaur mundu guztia, izan ere, *depreak* jota dago. Ikustekoa baita zer arintasunarekin

erabiltzen dugun hitz hori, *deprea* gora eta *deprea* behera!

Baina nik neure egia esango dizut: *depreak* benetan jota dagoena, ez da inoiz *depreaz* mintzatzen: *depreak* benetan jota dagoenak aski eta sobera du bere minezko mina bizkargaineratzearekin. Bai, badakit hitz horiek –*depreak*, alegia– bi adiera dituela gaur egun: alde batetik, depresioa izendatzeko era laburtua da; bestetik, guztiok izaten ditugun beheraldi edo tristuraldi ohiko horiek izendatzeko modu bat ere bada, depresioarekin zerikusirik ez duena eta, besteak beste, urtaroen aldaketak ere eragin diezagukeena. Nik –konbentzituta

diot– erabat baztertuko nuke *deprea* gure hitz egiteko era guztietatik, eta depresioa erabili. Horrela, bukatu egingo lirateke arinkeria eta anbiguitasun guztiak: depresioa, izan ere, oso gauza serioa da, pisu handiko hitza, zentzua bere osoan hartzen duena eta ez laburbideetan.

“Baina zergatik liburu hau?”, galdetu didazu: zergatik ez? Azken posibilitate hau ere bururatu baitzitezaidan; are gehiago, modu hori lotuago dago nire izaerarekin, nik hala uste, baina hara: nire egoera aztertu eta gero, aurkako arrazoiak nagusitu zitzaizkidan, eta arrazoi horiek erabaki zuten, hondarrean, nire jarduna.

jakiteko, gaitzak azpiratu behar zaituela noiz-bait. Egia biribila. Gaitzak astindu aurretik, izan ere, ondo sentitzen zara, normal. Zer da, baina, normaltasun hori? Niretzat, funtsean, lur egonkor bat da, zeinaren gainean, inongo arazorik eta buruhausterik gabe, eraiki baitezakezu zeure nortasunaren etxea. Halako batean baina, zeure burua ahul sentitzen hasten zara, ahul eta arraro, edo zeure buruarekiko arrotz. Azpian zenuen lur egonkorra, berriz, garune-ko hainbat neurotransmisoreren jarioaren faltaz –serotonina izenekoa inportanteena– dardarka hasten da, halaber, zure nortasunaren etxea, baita *nor* zinen *desnor* izateko bidean jarri ere. Eta bat-batean, izugarrikeriaren atarian sentitzen zara, ez baita batere erraza bizitzan aurrera egitea, mendean zauzkan lurrikara existentzial baten gainean zauden bitartean. Eta ahul eta gaixo nengoela, galderarik gaiztoenak –amoralenak, alegia– zetozkidan burura, auto-suntsipenerako dei... eta hura euli bat begian edukitzea bezala zen: hantxe eulia nire begi-inguruan beti, aldi behin liztor ere bihurtzen zena, asiar liztor krudela! Gaitz baten jostailu ezdeusa nintzen, beraz: bihotza sentitzeko ahalmenik gabe, burua ere batere argitasunik gabe.

Baina atera zara.

Hori ere egia da, buruan nituen argi-hondarrekin bai bainintzen zerbait ikusteko gai: gaitzaren eraso guztien erdian, adibidez, neure burua objektibatzeke gai ere banintzela ohar-tu nintzen halako batean, eta horrek ikusarazi zidan ni ez nintzela gertatzen ari zitezaidana-

ren erruduna, beste alde batetik erruduntasun sentimendu inkontziente batek gupidagabeki urratzen eta higitzen ninduen arren. Baina ene barne-borroka hartan, bai, garrantzi handikoa izan zen buru-argitasun txiki haren aurkikuntza, nire gaitza gero eta hobeto ulertzer agraman ninduen.

Jainkoa aipatzen duzu liburuan behin edo behin, eta jakin nahi nuke nola ulertzen duzun kontzeptu hori.

Ez dut jainkoa aipatzen, ustez, Misterio Bizisortzailea baizik. Baina berdin da. Hara:

errealitate infinituaren presentzien eta ausentzien artean, garbi esan dezaket sinestunagoa sentitzen naizela ez-sinestuna baino. Arrazoiak bilatzen hasiz gero, derradan ezen nire gurasoak –aita bereziki– oso zirela erlijiozaleak: katolikoak, noski, eta ni ere halakoa izan nintzen, nerabegarora bitartean. Orduan, krisi bat izan nuen. Izan ere, gure apaiz-

zek –gure heziketaren borrarero eta biktima, biktima eta borrarero, aldi berean– esaten eta baieztatzen zuten ezen sexuari eta seigarren aginduari lotutako egintza guztiak bekatu mortal zirela. Egun batean, amets erotiko bat izan nuen, isuri batekin amaitu zena: atseginarean erdian, ordea, sekulako kezka sentitu nuen, bekatu egiten ari nintzen ala ez, zerua ala infernua jokoan. Joan nintzen apaiz batengana, eta hark are zalantza handiagoak sorrarazi zizkidan, nik areagotzen nituenak, nik ere sekulako abilezia baitaukat argudioen gainean beste argudio baitzuk eraikitzeke, logikaren edo sasi-logikaren bideak erabiliz

“Ez zaizkit dogmak interesatzen, are gutxiago idazlea naizen aldetik”



ARGAZKI PRESS / ANDONI CANELLADA

betiere, harik eta ebanjelioa neure kabuz irakurtzea erabaki nuen arte: irakurketa hark erabat aldatu ninduen; izan ere, ebanjelio osoan ez nuen aurkitu hitz bat bera ere sexuari buruz! Jesusek, aldiz, noiznahi erabiltzen zituen ahoan justizia eta maitasuna bezalako hitzak, eta noiznahi ibiltzen munduko gabetuekin: pobreak, publikanoak, putak. Irakurketa hark, beraz, guztiz aldatu ninduen, baita, berandu gabe, Gandhi eta Martin Luther Kingen teoretara eramanez ere.

Elizaren garai esanguratsua ezagutu zenuen.

Bai. Garai horrek kointziditu zuen Elizaren *aggiornamento*arekin, kontzilioaren aire berriak bitarteko. Eliza modernizatu behar zen, Jesusen mezua gaurkotu. Handik aurrera, berriz, bide gero eta pertsonalago bati ekin nion, zeinak Erromako Elizaren dogmekin haustera eramanez baininduen —ez zaizkit dogmak interesatzen, are gutxiago idazlea naizen aldetik, askatasun eremua zaintzea lehen obligazioztat duena—, halako eran, non, azkenean, muinarekin bakarrik geratu bainintzen: Jesus poeta bizizale bat zen, herri xehearekin bat egin zuena, eta nahikoa eta sobera nuen horrekin. Garaiko gazteak ez bezala, beraz, egun batetik bestera santujaleak izatetik marxista-leninistak izatera heldu zirenak, nik neure bidean jarraitu nuen, Elizak mendetan zehar zabaldutako errituak eta aparatu ideologiko guztia bazter utzita, hori bai, are bazterrago utzi nituena Venezuelako esperientzia bizi ondoren, askapen teologiaren jarraitzaileekin harremanetan jarri bezain fite.

Mundu hau zuri ere sinesgaitz gertatzen zaizu.

Ba, horixe. Hain da harrigarria inguratzen gaituen errealitate misteriotsua, mikromundua eta makromundua... ez nintzatekeela harriruko, alegia, beste mundurik balego, edo munduan egoteko beste era bat. Askotan pentsatzen dut, halaber, mundualdi honen ondoren ezereza izango dugula sari: hori ere,

“Liburuan ez dut Jainkoa aipatzen, ustez, Misterio Bizi-sortzailea baizik. Baina berdin da. Hara: errealitate infinituaren presentzien eta ausentzien artean, garbi esan dezaket sinestunagoa sentitzen naizela ez-sinestuna baino”.

baina, ez da nolana hiko saria; niretzat, izan ere, oinazea da infernua, eta ezerezak ez du minik ez oinazerik, ez du sufritzen. Bitartean, hemen nago Misterio Bizi-sortzailearekin hizketan, biraotik —galdera potoloak eginak dizkiot jainkoari, oraindik erantzun ez dizkidanak— maiteminera eta maiteminetik birara. Bueno, tarteka ere baditugu geure barrealdiak. Hitz-joko bat eginez, zera ere esan dezaket, nik ez dizkiodala Jainkoari edo Dena Delakoari adarrak jarri —oraindik ez behintzat—, baina gustatzen zaidala, bai, aldian behin Hari adarra jotzea: maitasun handiz diot, gezurra badirudi ere.

Aldatu al zaizu bizitzarekiko kontzientzia?

Funtsean, ez. Baina aitortzen dut azken bolarik honetan pairatu ditudan nire bi gaitz hauen zafaldiak ahuldu eta higatu nautela, maila batean. Maila dexentean ere bai. Baina, nagoen bezala nagoela, aurrera egiteko moduan nago, gero gerokoak.

Bilobatxoa tarteko, zer moduz hartu dute familiakoek liburua? Eta lagunek?

Nik ez dut dudan jartzen maite nauen jendea —lagunei eta senideei, baita hainbat irakurleri ere, ausaz— min egingo niola liburu honekin. Baina maite nauen jende hori, halaber, pozik egongo da, beraiek atera bainaute putzu beltzetik, azken batean, beren egiteak eta ez-egiteak —bakean uzteko esaten nienan, bakean uzten ninduten— bitarteko. Jaso ditudan e-mailak, gainera, guztiak dira adoreaileak eta ulergarritasunaren bahetik iraziak, laudoriozkoak ere ez gutxi, baita aleka batzuk ere, amodiozko gutuntzat ere har litezkeenak. Bilobatxoari dagokionez, berriz, nik uste dut zeharo poztuko dela liburuxka inoiz irakurtzen badu —adin batetik aurrera, jakina—, gaixoaldiaren unerik txarrenetan haurraren begiak —eta inozentziarenak, azken batean— izan baititut itsasargi, izan ditut jarraibide, izan ditut salbade. ■